

Denak hasperenka

Giani Celati

Itzultzailea: Pello Lizarralde

2005

Igela

Pinotxoren berridazketa?

Aurkikuntza atsegina, usterik gutxieneko unean egina gainera, eleberri hau irakurtzean egiten dena. Hortxe dago, beste mila ahots, mundu eta erreferentziaren artean, haur eta gazte literaturaren historia osoan egin den libururik onenaren oihartzun garbia. Kontakizuneko pertsonaia bat izango dugu narratzailea, Garibaldi ezizena jarriko dioten mutikoa, eta berak kontatuko dizkigu lehenengo pertsona eta hirugarrena txandakatu, liburu honetako istorio guztiak. Asko baitira kontatzen diren istorioak, denak hari berari tiraka edo abiapuntu beretik ekinda emanak. Errusiako matriuska panpinen antzera, istorio baten barruan beste bat aurkituko dugu, horren barruan beste bat, eta horrela. Zuzen eta inolako erreparorik gabe kokatzen gaitu narratzaileak istorio bakoitzaren aurrean ("Orain kontatuko dut nola..."), kontatzeko modu arin bezain erakargarrian, oralitatetik oso gertu. Alde horretatik zoriontzekoa dugu P. Lizarralderen lana, sen handiz antzeman baitio ezaugarri horri, baita xede hizkuntzan efektu bera lortu ere. Kontatzeko modu natural eta zuzena izateaz gain, edukia ere berdin ematen da: gordin, ezer leundu gabe, hots, disimuluez haratago, gauzak benetan bizitzen diren bezala azalduz. Eta jakina, mutiko bat izaki kontalaria, espero izatekoa zen inozotasun-dosi handi batez emana izatea kontakizuna. Hara non, ordea, ironiaz eta umore finez betea den kontakizuna. Kontraesana badirudi ere, halaxe definituko nuke mutiko narratzailearen kontatzeko modua, inozotasun ironikoa, alegia. Horrek erakusten digu – hala aitortua du gainera egileak berak– aurrean duguna ez dela inondik ere autobiografia bat, ez dela, alegia, bere haurtzaroa eta bere anaiarena kontatzen ari. Asmatutako mundua, asmatutako pertsonaiak dabilzkigu batetik bestera mundu erreala bezain magiko batean. Pertsonaien ezizenek ere berebiziko garrantzia dute giro hori lortzeko. Hala mutikoaren anaia nagusia ezizenez aldatuz joango da "eboluzionatu" ahala: Mikel Strogoff, Nemo Kapitaina, Phileas Fogg. Benetan interesgarria mutikoak bere anaia zaharra nola karakterizatzen duen eta nola karakterizazio horren azpian egundoko egurra ematen dien bost duroko hitzen erabiltzaileei (narratzailearen beraren definizioa erabiltzearen), eta gaineratuko nuke, Santxo eta Kixoteren arteko lehiaren oihartzunak soma daitezkeela bi anaion norgehiagokaren artean.

Liburu hau irakurtzeko bidaia edo, hobeki esan, bidaiak egiteak abentura dibertigarria bizitzeko ez ezik, gogoeta sakonak egiteko parada ematen digute. Bejondeizuela.

Mikel Garmendia